

# Ez kapar, ez bakar

Xabier Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
2003



Zumaiko Udala

*enkar  
txanpa*



# Ez kapar, ez bakar

Xabier Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia 16. ipuin lehiaketa

2003

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Azkue Ibarbia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

## CAPAR FUNCIONALIS

Animali bat badau munduen  
mikroskopiko samarra  
aumentuakin ikusi ezkeru  
hankatsue ta zatarra  
garrapatie erderaz eta  
euskeraz barriz, kaparra  
inon odola txupetie da  
eitten dakixan bakarra  
bizi ezinik dauzen gaixuek  
badauke horrein biharra.

Kapar kaskarren bizimodue  
ez da gatxa asmetie  
laneko bide bakarra dauke  
txollue edo suertie  
lortzen badaue muturra sartuz  
nunbaitten koloketie  
ziurtetute izaten daue  
hil artien txupetie  
animalixen erresumako  
funtzionaixuek die.

AITOR eta JON SARASUA.

Malenkonia da biztzari bere edertasunagatik ordaindu beharreko prezioa. Amodioa ezagutu, gozatu eta sufritu duenak, urteen iragaiteaz bere buruari galderak egin dizkionak, hori ere badaki: malenkoniaz betetako egunekin ordaintzen da zoriona ezagutzera eman zitzaigun egun handi haien edertasuna.

PAKO ARISTI

## OSTIRAL GOIZA

Aspertuta nago, eta leiho aldera begiratu dudanean, patilladunen errege Ruper kantari hasi zait, bere horma-iruditik:

*"Eguneroko bizitza, ikatza bezelako labezomorruak isurtzen hasi zenian..."*

Labezomorruak ez, ikatzak bezalako letra-andanak irenstea egokitu zait azkenaldian, eta ez nago ohituta. Urte asko dira ikasteari utzi niola eta garai hartan ere ez nintzen azterketetarako asko ikasi zalea. Pixka bat disimulatu, gutxienekoa egin eta gairitu beharrekoa gairitu, hori zen nire jokabidea. Hau desberdina zen, ordea. Gauza asko daude jokoan: bizitza bera agian?

Orain artean garbi izan dut ez dudala funtzionarioa izan nahi. Gaizki-esaka jardun izan dut Lakua aldean eta beste nonahi ikusi izan dudan jendilajearengatik. Behin postua lortuz gero akabo langile horien lanerako grinak! Gogora ekarri dut sarasuarrek eskainitako bertso sorta, *Capar Funcionalis* hura, hainbeste markatu ninduen. Ez dut berehala ahaztuko haien emanaldi batean banatutako koadernotxoan ageri zen irudia, zomorro nazkagarri batzuk zupa eta zupa!

Ez dut kapar bihurtu nahi! Baserrian Txispa txakurrak sufritu zituenak sufritu eta gero! Aldian behin, Osaba Julianek bolatxo zuri batzuk ikusten zizkionean, atariko eserlekura ekarri ohi zuen Txispa:

—"Amaaaa, karri oliyua-ta, Txispak berrize bakastak dazka-ta!!"

Eta izeko Mirenen txanda izaten zen orduan, trapu bat oliotan bustita, "Torri Txispita" esan, bakastak pixka bat libratzeko olioarekin igurtzi eta pintza batzuekin tentu handiz ateratzen zizkion odol-zurupatzaile haiek. Txisparen intziriak entzutekoak ziren, gaixoa, baina bazekien beharrezkoa zela eta izekoren eskua miazkatuz eskertzen zion gaizkile haietatik libratu izana. Hura nazka, hain gauza beltz txikian atzean bola zuri batean odol gorria pilotuta! Munstro txiki horiek gizakiongan berdin jokatzen dutela pentsatzea ere! Are eta okerrago, gizakiok ere berdin jokatzen dugula imajinatze hutsa ere! Eta nik animalia itsusi horietako bat izaten saiatzea erabaki nuen!!!

Aldatu ezin izan ditudan ohitura txar horietako bati jarraituz, edozein aitzakia bilatu dut mahaitik jaiki eta ikasteari uzteko. Hiztegi entziklopedikoa hartu eta BAKASTA sarreran zer jartzen duen begiratu dut:

*Bakasta. Ik. lakasta*

Eta LAKASTAn:

*Lakasta. (Ipar.) Akaina*

Zer arraio? eta KAPAR zer da orduan?

*Kapar. (Zool.) Akaina*

AKAINa zer den begiratu beharko dut, ezinbestean:

*Akain. (Zool.) Akaroen ordenako zenbait araknido parasitoren izen arrunta. Hausnarkarien, txakurren eta, batzuetan, gizakien larruazalean odola zurgatuz bizi diren milimetro gutxiko animaliak dira.*

Gauza handirik ez du jartzen, baina eskertu dut definizioa irudi batez ez laguntzea. Izen-dantza horrekin gustura geratu ez eta beste hiztegi batean ikertzen jarraitzea erabaki dut. Elhuyarren hiztegi elebidunak eta antzekoak atera baino lehen asko erabili nuen PLACIDO MUGICAREN hiztegi kuttuna hartu dut orduan, eta GARRAPATA sarreran zer ematen duen ikusi:

*Garrapata mayor: akain, akien, bakasta, lakain*

*Garrapata menor: lapar, kapar, itain, kapasta, artapo, kaskurri.*

Horixe falta genuen, tamainaren araberako kategoriak bereiztea, soldataren arabera funtzionarioak bereizten diren bezalaxe. Eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko orrietara jo dut orduan, mahai gainera, eta azken hilabetean hogeita lau aldiz irakurritako atala hogeita bosgarrenez irakurri dut:

#### *2002RAKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA*

*Karrerako funtzionarioak*

*Lanpostuaren izena: Hizkuntza normalkuntzarako erdi mailako teknikaria.*

*Sailkapena: Administrazio Bereziko Eskala, Tekniko Azpieskala, Tekniko ertain mota.*

*Betetzeko era: lehiaketa-oposizioa*

*Hizkuntza eskakizuna: 4.*

*Zestoa, 2003ko maiatzaren 23a.*

#### *ALKATEA*

Datarena esanguratsua iruditu zitzaidan hasiera-hasieratik: hauteskunderen bezperan azken orduan hartutako erabakia zen euskara-teknikari bat kontratatzea, hauteskunderetan eta ondoren zer gerta ere. Batasuna ilegalizatu eta gero onartu zituzten zerrenda abertzale bakanetakoa zen Zestoakoa, eta kasualitatea edo ez, alkatetza galdu eta EAJren eskuetara pasatu zen maiatzaren 25ean.

Beste kopuru batek sortu zidan zirrarra handiagoa, ordea. EUFALEBAko 14. soldata maila izango duela jartzen du eta sindikatu batean liberatuta ziharduen lagun baten bitartez badakit administrazioiko taula berezi horretan 14. mailak zer esan nahi duen, urtean euro asko, bost digituetatik lehen zenbakia 2a zuen kopuru magiko bat... Hogeita mila eta piko euro!!

Garai batean ezin pentsatu 34 urtera iritsi eta horren diruzale bihurtuko nintzenik! Premiak zer egiten duen! Joana Bixenta bezalaxe, hileko errenta ordaintzen nahikoa lan izaten dut! laz ederra gertatu zitzaidan, gainera: herriko Udalak behin egingo babes ofizialeko etxebizitzak, zozketan etxe dotorea

egokitu (loteria!!) eta gero ezin hartu, aurreko urtean 12.000 euroko diru-sarrerarik izan ez nuelako!! Alferrik izan ziren AEK-ko sasikontratu haiek guztiak, itzulpenetan autonomotan egindako 5 hilabete haietako kuotak eta beltzean egindako beste lan denak!! Orain, Zestoan muturra sartzea lortuko banu sikiera, lan-poltsara sartuz gutxienez...

Eta berriz ere kaparren bertsoak etorri zaizkit gogora: lortzen badute muturra sartuz nonbaiten kolokatzea, ziurtatuta izaten dute hil artean txupatzea... Patilladunak gustatzen zaizkit, bai, eta badakit sarasuatarrak ez direla halakoak, Jonek hanka nahiko txikiak dituen arren. Unai Iturriaga ere maite dut, nola ez. Haren originaltasuna. Leioan bi urtean kointziditu nuen berarekin, gainera, eta UEUko ikastaro batean ere elkarrekin egon ginen. Tipo autentikoa. Unairen liburua, Elorriaga horren famarik izan ez zuen arren, gustatu zitzaidan, Nola zen? *Berandu da...* Zertarako zen berandu? Atxagaren *Berandu dabilta* eta gero beste hori... Inoiz garaiz iritsiko ote gara?

Mahaian eseri naiz berriz ere. Pare bat karpeta eta apunte mordoxka dut zain. Bazkalondoan gogotsuago ekingo diot, agian. Izan ere, erosketa batzuk egitea ere joan beharko dut. Lanerako gogo gutxi daukadan seinale? Zalantzarik gabe.

Gehiegi pentsatu gabe, atzoko arropa berak jantzi ditut: malla beltzak, jertse gorria eta zapatila zuriak. Total, Eroskiko buelta egiteko... Bertan dago Eroski, lehen baseritarren azoka egiten zen tokian. Ai, aurrerabideak! Plastikozko saski gorrian sartu ditut gauza gutxi batzuk. Zertarako gehiago, asteburuan ia ez dut etxean jango-eta? Esnea erdigaingabetua, pizza fresko horietako bat, fruta, zumoa litro eta erdi... Kaxan Nerea tokatu zait, nirekin eskolan ibilitakoa.

—Kaixo, aspaldiko! Noiztik hemen lanean?

—Aste honetan hasi naiz. Orain arte Zarautzen aritu naiz, baina hemengo batek ospa egin duenez... Eta zu, oraindik ere irakasle?

—Ez, neska, ez. Nik bi urte bai utzi nuela. Orain itzulpenak egiten ditut eta bide batez oposaketa batzuk prestatzen ari naiz.

—Suerte, bada. Egunen batean hemen hasi nahiko bazenu lagunduko dizut nik.

Ez, eskerrik asko. Lehengusuaren bitartez badakit nolako baldintzak dituzten lehen hilabeteetan behintzat. Eta gero esklabutzarik eta esplotaziorik ez dagoela!

Ttipi-ttapa laugarren solairura gora, eguneroko gimnasia egin dut. Etxe zaharretan igogailuak egitea zaila baita! Errenta dezentez garestiagoa ere izango litzateke, gainera. Txorizo-mutur bat mikrouhin labean berotu eta pintxo bat hartu dut (gora zerriaren dieta!), berriz ere "ikasgelara" sartu aurretik. Bazkalaurretik lege-kontuak begiratzeko tartetxo bat hartzen badut, ondo.

Atentzioa eman zidan Zestoako oinarrietako I. eranskineko zerrenda Espainiako Konstituzioa ez ikusteak. Jakingo balu nik dakidan bibotedunak, noiz eta 25. urteurrena betetzen duenean horrelako lehiaketa batean ez dela sartu!! Lagun batek parte hartu izan du horrelako lehiaketatan eta utziak zizkidan nahikoa apunte eta test. Ez dit pena handirik eman, halere. Nahikoa "ikasgai" badago:

- 1- Euskal Autonomia Erkidegoa. Autonomia Estatutua
- 2- Udalerria. Antolakuntzaren irizpide orokorrak.
- 3- Udalaren Gobernu Organoak eta antolamendua
- 4- Toki erakundearen jarduera. Ordenantzak eta Erregelamenduak
- 5- Udal administrazio prozedura
- 6- Herritarrekiko arreta eta informazioa. Herritarrek parte hartzeko moduak.

Azken hori gustatu zait gehien, izenburuz behintzat, eta juxtu gai hori da orain arte inon topatu ez dudana. Udaletxera deitu eta zuzenean galdetu beharko nieke, zer den edo, bestela hemengo euskara teknikariari kontsultatu, nahiko jatorra da-eta.

Barre pixka bat egin dut lehen gaiarekin. Jakinda ekainean zein alderdi sartu zen udalean, astia falta izan zitzaien Ibarretxe Plana sartzeko! Baina kontuz, beharbada lanean hasi eta berehala ikasi beharko dugu "Bizikidetzarako Itun Politiko berria". Oraindik gordeta daukat *Berriak* irailaren 27an (Gudari Egunean!) ekarri zuen erreportajea, kuriositatez:

*"...eredu politiko berri horren oinarria da elkartzeko librea, estatu osatu plurinazional asimetrikoa garatzeko aukerarekin bateragarria"*

Tumatxa, hi! Azterketa iristen denean, eta azkenean aurkeztuko banintz, beharbada oharren bat jarri beharko nuke amaieran: "Hau guztia erabat alda liteke Ibarretxe Txit ohoregarriaren plana gauzatuko balitz eta...". Gehiegi litzateke.

Konstituzioa, Estatutua, Udaletako arauak... Denen artean sare handi bat osatzen dutela iruditzen zait, amaraun estu-estu bat, eta gu bezalako eltxo, euli eta bizidun oro hartu nahi dituztela bere baitan. Zaila da ihes egitea gero!! Gelako sabaira begiratu eta izkina batean amarauntxo bat begiztatu dut. Norbait/zerbait, lotsagabe ni sarean sartu nahian? Biharko garbiketari eskobak irentsiko du asmo zikin hori.

Bitartean, lagun batek utzitako karpeta batean topatu ditut Udalaren funtzionamenduari buruzko apunteak, txukun-txukun, gaika antolatuta. Ez dauka nire antza handirik Idoiak! Izenburu nagusiak berdez azpimarratuta, gainerakoak laranja eta testuak garrantzitsuena hori fosfoz, testuak ez dirudi hain itsusia; baina gaztelaniaz eta hizkera "jaso" horretan...

*... el art. 15 T.R./86 dispone que el Alcalde declarará de oficio la vecindad de quienes al formarse o rectificarse el Padrón lleven por lo menos 2 años de residencia efectiva en el término municipal."*

Hau buruko mina! Eta dena horrela da! Hainbat eta hainbat orrialde! Euskaraz ikastea ez litzateke samurragoa izango, ordea. Alkatearen eginbeharrak zein diren ere ikasi dut ondoren: Udalaren ordezkari izatea, gobernua zuzentzea, karguak izendatzea, deialdiak egitea, ordenantzak betearaztea eta horrela beste hogeitaka betebeharrak! Ez dute meritu makala, horien erdiak zintzo betetzen badituzte!

Hortik aurrerakoa ezagunagoa egin zait, Udalbatzaren kontua, koadrilako izaskun zinegotzi izan zen 4 urtez eta. Halere, buruz ikasteko ez da erraza. Ohiko

batzarrak, ezohikoak, deialdiak, gai-zerrendak, eztabaidak... Dena oso polita, baina egia?

*a) Sólo podrá hacerse uso de la palabra previa autorización del alcalde o Presidente.*

Izaskunek kontaktzen zidan bezalaxe, porlos! Akordioak, aktak, ziurtagiriak... dena azaletik begiratzeko indarrak batu ditut, oraindik ez dakit nola. *"Aupa Arri, onena haix! Eta bazkaltzea jutia merezi den, noski!"*.

Irratia piztu eta ahots ezagun bat ezagutu dut, lehen arratsaldetan aritzen zen neska harena. Ez zait hain txarra iruditzen, beste batzuekin alderatuta. Bezperako polizi operazioa komentatzen ari dira oraindik, eta biharko manifarena. Egunkariaren aldekoan izan nintzen, otsailean, baina biharkora ezin izango dut. Badaude laguntzeko eta elkartasuna adierazteko beste bide batzuk, eta alderdi horretatik lasai nago.

Gose handirik ez dut, baina jakiak prestatzen hasi ahala gosetuko naiz, beti bezala. Herenegun prestatutako lentejak hozkailuan dauzkat, baina haiek jateko gogorik ez. Gaur ez bada bihar komuneko zulotik behera botako ditudala uste dut. Gaur, kaleko hego haizeak epelduta edo, entsalada jateko gogoia sartu zait. Eta armairuko zoko guztiak aztertu eta gero, 3-4 lata topatu eta zabaldu ditut: azenarioak, artoa, atuna, erremolatxa gehi betiko osagaiak. A zer zapore festa! Sagar bat ere nahasi diot, urdaiazpiko egosia... Plater bakarra, baina konpletoa. Sagardo pixka bat bakarrik falta zait, baina ez daukat botilarik eta eskerrak ez daukadan, bestela arratsaldean ez nuke ezer egingo-eta.

Goxoa dena, ontziak harraskan utzi ditut, ur pixka batekin beratzen. Geroko, noski. Neskafe bat prestatu dut, egunero bezala: koilarakadatxo bat kafe, beste bat azukre, ur-ttanta pare bat eta dena masa bat egin; mikrouhinekin berotutako ura bota eta magia!, kafe apartsua prest!

## OSTIRAL ARRATSALDEA

Salako nire txokoan eseri naiz, luze, telebistari begira. Zer arraio, umeek ez dute lasai bazkaltzen edo? Denean marrazki bizidunak daude! Edo bestela tertulia nazkante horietakoak, jasanezinak. Ea gurera noizbait iristen den kable bidezko telebista eta naturako dokumental horiekin siestatxoa lasai egiteko modua dudan. Lehiaketa txoro hori ez, teleberririk ere ez dut ikusi nahi, telenobela kutre bat hautatu dut, 20 minutuan begiak ixteko ezin aproposagoa...

Doinu arabiar batek esnatu nau. Telefono madarikatua! Mugikorraren doinuak adierazi dit Ama dela.

—Arratsalde on, Arritxu! Bazkaldu al dezu?

—Bai, Ama. Oraintxe bukatu det. Zer dezu?

—Bihar ia etortzekua al zeran bazkarita, jenerua kalkulatzeko...

—Ez, Ama. Lehengo zapatuan esan nizun Talaipen degula bazkaia, kintotakua. Datorren astian jungo naix...



—Ondo da, ondo da. Eze bihar al dezu?

—Ez, Ama. Moldatuko naix. Aio!

Ostiraleroko kontua, astean behin familia osorik ikusteko premia hori. Anaia, Ander, larunbatero joaten da Ane koinata eta Garazi ilobarekin. Erosoa da oso mahaian eseri eta jatea, ezer prestatzen aritu beharrik gabe. Ordu erdian bederen Garazirekin jolasean aritzea ere maite dut, zerbaitetarako bainaiz haren izeko faboritua.

Baina jatorduak... Aita laster baino lehen hasten zait atakean.

—Ta? Espiritu santuan zai al hao, eo? 34 urte eta beste ilobaik ez al dian karri bihar? Nik astia bazikanat Garazi ta besten bat zaitzeko...

—Bueno, Aitta, bale! Inportazioko mutila igual hartuko det, bestela, ikatza bezain beltza, muskulosua, gero zuk kafesne koloreko umia pasiatzeko!

—(...)

Arazorik gabe egingo luke, badakit, baina horrelako gauzen aurrean erreakzionatzea kostatu egiten zaio, eta adar-jotzea adar-jotzearekin erantzuten aspaldi erakutsi zidan Aitak berak. Halere, arrazoi pixka bat badu. Edadean aurrera noa eta...

Akabo siesta! *Berria* hartu eta TBko gaueko programazioari begira egon naiz. Pilota, pelikula eskasak eta gala txoroak. Hau da panorama! Martin Ugalde kultur parkeko gorabeherak goizean irakurri ditut gainetik, atxikimendu mordoa daudela ere ikusi dut, baina txartu egin naiz bidegabekeriak etenik ez duela ikusita. Baleike herri aldizkaria hartu dut gero: Jon Maiaren taldea portadan. Beste patilladun bat, sinpatikoa, baina niretzat besteen "zeoze" hori falta duena. Erdizka irakurri nuen aldizkaria joan den asteburuan eta iruditu zitzaidan nahiko itxurazkoa atera dutela oraingoan: artea eta sasiarteari buruzko ezdakitzenbagarren gutuna, "Bolivia lehertzeko zorian" erreportajea (hori bista izan dutena, aste honetan gasarekin gertatutakoa ikusita), Trinidad Santuko hirukotea udazkenaz eta malenkoniaz galdezka...

Malenkonía. Izen horri zenbat buelta eman dizkiodan! Iaz Egunkariako zutabe batean beste patilladun batek —Pako Aristi beti interesgarriak— idatzitako esaldi hura orri batean letra handiz inprimatu eta horman oraindik hantxe dago, oroimenean iltzatuta dagoen bezalaxe:

*Malenkonía bizitzak eman digun edertasun guztiagatik  
eskatzten digun bihotz zatia besterik ez da,  
triste uzten gaituen hutsune bat.*

Udazkenean azaleratzen zaidan sentimendua, lehen hotzak hasi eta ohean luzaro izerdirik ateratzen ez dudanean... Hain hasiera polita duen hitza, MALEN, alabatxoari gustura jarriko niokeen izena...

Burua erabat joan baino lehen, berriz ere heldu diot aldizkariari. Bi zumaiar Gipuzkoako Txapelketan. Kasualitatea, hantxe ibiliko da garai batean kuttuna izandakoa ere, ordu txikietako bertsolari hernaniarra, Iñaki. Bost urte alai, zoro, parrandaz jositako izan ziren, duela hiru amaitu zirenak. Iñaki asko maite izan nuen, baina gizagaixoari apustu batean patillak jokatzeko okurritu ez zitzaion ba! Galdu eta moztu ondoren, ez genuen asterik egin elkarrekin, gurea moztu edo eten aurretik. Komunikazio eza eta beste hainbat aitzakia ere izan genituen

aipagai, erabat argitu gabeko adar kontuak ere bai tarteko. Hala ere, nik garbi neukan mutil hari identitatea zerk ematen zion. Ez dakit aurten txapelketako saioen batera joango naizen, hura ikusteko gogo berezirik ez daukat-eta. Beharbada Jon Maiaren koadrilakoekin, hainbeste direnez... Bertsozale Elkartearen webgunean saltseatuko dut finalurreko egunak eta nola dauden, Zumaian ere bada saioen bat-eta.

Gogoratu naiz Interneten gaur ez dudala postontzia begiratu. Jaiki, beraz, eta gelara sartu naiz. Gauza handirik ez, baina mezu mamitsuak: SEI elkarteko buletina (soziolinguistikaz informatzen nauena), ARGIAko asteko gaiak zein diren, Xabierren mezu bat! Tipo sinpatikoa da bera, irundarra, kaskamotza zeharo, ez oso erakargarria baina jatorra erabat. Marokon ibili ginen elkarrekin, iazko Gabonetan, 10 eguneko bidaia batean. Neska batekin zebilen garai hartan, bidaian bakarrik zen arren, eta lehengo abuztutik bakarrik geratu da berriz ere, mutlizahar eta neskazaharron klubean. Triste omen dabil. Nahi duenean etortzeko eta kafetxo bat hartuko dugula esango nioke, talasoterapia saio batera gonbidatuko dudala... baina ez diot erantzunean oso kutsu maitekorra eman nahi, esperientziak bai baitakit horrelako uneetan edozeini edo edozeri gogor heldu nahi izaten diogula.

Konexioa aprobeztatu eta Jaurlaritzaren gunean sartu naiz, aspaldiko partez. Euskarako atalean aritu naiz nabigatzen eta irlatxo batzuetan gauza interesgarriak aurkitu ditut: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) osorik PDF formatuan, 2001eko soziolinguistikako datuak, euskarari buruzko legeak ere jarri dituzte! A zer txolloa, lehen liburutegietan kostata lortzen zena orain etxetik atera gabe eta doan! Hori bai, paperera pasatzea garestia da niretzat, eta Ander anaiari bidali dizkiot lantokiko helbidera, bulegoan inprimatu ditzan.

*Hermano, majo, ateaizkiak dokumentu hauek laser inpresoratik, ahal bada datorren asteako.*

*Ordainetan Garazi zaituko dixuet hurrengo batian, noski.*

*Arri*

Oinarrietako II. eranskineko materiala pixka bat begiratzea jarri du helburutzat arratsalderako. Ez baita erraza kokatze hutsa ere.

*1- 10/1982 Legea, euskararen erabilera arauzkotzekoa*

*2- 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa*

*3- 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomi Elkarteko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.*

Eta beste dozena bat gail! Datu demolinguistikoak, neurketak, AEBE metodologia, arlokako esperientziak, EBPN, EUMA, Kontseilua... Euskarak aurrera egiten ez badu, ez da izango planik landu ez dugulako, behintzat! Zer bihurtu da hau? Euskalgintza, edo dena delakoa, ulertuko duen amaren seme-alabarik ez dago gaur egun. BAI EUSKARARI esatera joan ginen Anoetara, herrian 5-6 bilera egin herrirako plana landu eta konpromisoen gaia bultzatzeko, euskara elkarte sortzeko bilera amaigabe haiek porrot egin zuten, Udalak azterketa soziolinguistiko bat eginez bere egitekoa makillatu nahi izan du, Jaurlaritzak EBPN ez den beste ezer ez du onartu nahi, Kontseiluak ez du dirurik hainbat proiektu gauzatzeko... Guardia Zibilak galarazi gabe ere, zaila da herri honetan

emaitza batzuk lortzea. Eta ni, seguru nago arlo horretan lanean jarraitu nahi dudala? Ez dakit, bada. Kartzelara ez dut joan nahi, gutxienez.

Euskaltegira ere ez dut itzuli nahi, nahiko erre nintzen lau urtean eta ederra saltsa daukate orain HABEkoekin. JAKINen azala ikusi nuen lehengo asteko Berrian: *Euskalduntzea krisian?* Horixe baietz! Itzulpenen bidea ere hor daukat aukeran, testuliburu aspergarri horiekin aritzeak batere gogobetetzen ez nauen arren. Soziologia ikasi eta horretan lan pixka bat egiteko asmoa banuen garai batean, baina aukeran soziologo gehitxo atera ginen Leioatik.

Soziologoei buruzko erdi txiste erdi ipuin bat asmatu nuen aurreko batean, ezagun batek egin zuen hanka-sartzean oinarrituta:

*Letamendia soziologo ospetsuak ezin izan zuen egoera gehiago jasan: **bere buruaz batez beste** egitea erabaki zuen.*

Gaizki dago nik esatea, baina oso ona da! Zein zen dinosauroaren ipuin hura idatzi zuena, Monterroso? Julene Azpeitia lehiaketan bi lerroko ipuinak onartzen dituztenean aurkeztuko naiz, beharbada. Bi orritik gorakoak idazteko alferra bainaiz zeharo.

Bi orri baino gehiago daukat aurrean, zoritxarrez. EBPN liburu osoa, fotokopiatuak. Enpresa-munduko helburuak, kiroletakoak, gazteei buruzkoak irakurri ditut azaletik, eta EUSKARAREN ELIKADURA atalekoarekin aseta geratu naiz:

*Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.*

Jaurlaritzak ez dakit nola tratatzen duen prentsa, beste Espainiako Gobernuak ondo ez, behintzat. Egunkariarekin, Euskalgintzarekin eta Martin Ugalderekin nola portatzen ari diren ikusi besterik ez.

Euskararen Legeak dioena begiratu dut :

*Euskal Autonomia Elkartearen dauden herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak.*

Polita geratzen da horrela irakurrita, ezta? Hor ikusten dut euskara teknikarien ezina, horrelakoak bultzatu nahi eta beti jendearekin borrokan. Nahi izanda ere utzi ere ez digute egite, beste batzuetan. Garbi daukat, beraz, ez nintzatekeela gainerako kaparrak bezalakoa izango, ez horixe!!

OPOSIZIOAK hitzari erreparatu diot orain, denbora-pasa, eta adiera bikoitz horrekin jolasean hasi naiz. Aurkakotasunak ere esan nahi baitu, eta horrelakoetan alde onak eta txarrak bilatu behar izaten direla. Azterketak prestatzen ari naizen bitartean ezin diru asko irabazi, esaterako. Eroskiko kaxakoak abantaila, bere txikian. Nahiago, halere, anaiak bere tallerrean eskaini izan didan muntatzaile lan aspergarria hartu. Baina egunen batean Udaleko lanpostua lortuz gero? Orduan bai festa, 32 ordu sartu astean eta hogeita piko mila euro kontu korrontera!!

Gaur ostirala da, zer demontre! Nazkatu naiz hainbeste lege, euskalgintza eta uniformatuz! Aste honetan nire txokorik maiteenean ez naizela izan gogoratu eta hara joatea erabaki dut, bakarrik, plan osagarri bikainarekin:

ordubeteko saio Talasoterapian. Motxila bost minutuan prestatu dut eta argazki-dendan Idoiaren zenbait apunteren fotokopiak ateratzeko aprobeztatuko dut.

Behera jaitsi eta Mertxek berehala egin dizkit kopiak.

—Oaindik ez zea apuntatu. Igandian ez al zuaz mendira?

—Ez, ezin det ba. Bihar iluntzian konpromiso bat dakat eta luzatzen bada... Deskantsatu're in biharko deu!

—Bai, neska. Laxtima, halare, Kantabriako buelta hori oso ederra omen da-ta...

—Zuek bidia ikasi, ta hurrengo batian geure aldetik jungo gera!

—Ia ba, hala dan.

Jende jatorra elkartzen da hamabostean behin mendi-irteeratan. Nire edadekoak eta gaztetxoak ez dira hainbeste joaten, baina... Paraje ederrak ikusi, bide berriak ezagutu, pixka bat despejatu...

Hondartza gainean giro bikaina dago. Hego punttua nabari da, baina olatuak itxurazkoak daude. Zerua kolore gorrixkak hartzen hasia da. Gehien maite dudan txokoa: Algorriko harri gorriak. Duela pare bat aste hondoko irudi horrekin Julio Medemi egin zioten elkarrizketak txundituta utzi ninduen, filma ikusteko gogoz: Mikel Laboaren musika (orain patillarik ez duen arren, asko maitte dudan aittitta), olatuaren aparra Balezuloaren aurka brausta, batzuen eta besteen iritziak, Euskal Herriko hainbat txoko eder, muturreko iritzien osagarri (badagoela lur puska handi bat bi poloen artean!), irudi itsusien edergarri... Hasierako olatu hura pasatu eta berehala, inoren komentarioei kasu handirik egin gabe, filma bakarrik ikustera joango naiz, dena ahalik eta ondoen irentsi eta hausnarrean jarduteko.

Eskaileretan gora dator Mikel, oraindik ilea bustita, Natur Taldeko gure surfista, neoprenozko trajea poltsan duela. Jatorra mutila.

—Epa, Arri! Pasion eo?

—Bai. Talasoa nijua, pixkat relajatzea.

—Ez da plan txarra! Ni nahikua nekatu naix, olatuetan. Badakizu hilan bukaeran dala asteburu mikologikua? Bilera dao astelehenian!

—Ez nitzan akordatzen! Azalduko naix, ahal baldin badet. Gero arte!

Ez dakit asko aportatzen dudan Natur Taldean, baina gauza batzuk ikasteko oso ondo etortzen zait eta talde nahiko majoa elkartze garenez, motibazio pixka bat eskaintzen dit. Ederki. Asteburu mikologikoa, pintxo eder batzuk dastatu, perretxikoak biltzera joan baso zoragarrietara, sailkatzen lagundu, erakusketa zaindu... Saltsa polita.

Ez dabil jende asko Talasoan. Dozena erdi bat lagun, pare bat ezagunak. Aldagelan utzi arropak eta uretara! Tenperatura ederrean dago ura, tamainan. Bainu-ontzi handian egon naiz aurrena, txikian gero, txirrista moduko zorrotada horrekin dozena bat "fotokopia" atera dizkiot bizkarrari, aurrera eta atzera, eskanerra bailitzan. Azkenik altura askotako zorrotadak "gozatu" ditut: orkatiletan, pantorrilletan, izterretan, hurrengoak altura "delikatua" harrapatu dit, juxtu atzeraka ipurmasailak eta aurreraka hankartea hartzen zizkidalako. Hasieran desatsegina egin zait, hurbilegi nengoelako, baina atzeraxeago

joanda hazkura gozo bihurtu da ura, plazer sortzaile. Begiak itxi ditut, hankak pixka bat zabaldu eta esku batekin bidea ireki diot urari bainujantzia alboratuta. Errekastoak maitekiro kolpatzen duen arroka naizela imajinatu dut orduan, aparrez lastantzen duen goroldioa... Eta konturatzeko hotzikara batek astindu nau, oiho bortitz bat isilarazi dut barrenean, iruditu zait deskarga batez bainu-kide guztiak elektrifikatu behar nituela. Ez, inor ez da konturatu nire poz txikiaz. Hamar minutuz saunak izerdia kanporatu eta bost minutuko dutxan erabat garbitu naiz. Itsasoaren sendabideak, mundialak.

Nekatuta, lasai-lasai, herrira jaitsi naiz. Ez naiz gose, baina patata-tortillaren tentaldian erori naiz, berriz ere.

## OSTIRAL GAUA

Pintxoa goxoa zegoen. Hartara ez daukat afaria prestatu beharrik, gainera. Ondo nago ohera joateko ere. Andoni eta konpainia betiko terrazan ikusi ditut; artista koadrila, koadrila artista. Noizean behin bakarrik ibiltzen naiz beraiekin, baina estimatzen naute eta bizpahiru koadro opari eman izan dizkidate azken bi urteotan. Ni ere ahal dudanean laguntzen saiatzen naiz, ordainetan. Gaur ez naiz haiengana hurreratu, ez daukat enrollatzeko gogorik-eta. Biharko eguna gogorra izan daiteke eta etxera abiatu naiz.

Igorrekin topo egin dut, ordea. Baleikeko sortzailea, zuzendari izandakoa, aldian behingo kolaboratzaile izan nintzen garaian. Zenbat hilabete egin genituen elkarrekin? Zortzi? Bederatzi? Aldizkaria bera ni baino gehiago maite zuela konturatu nintzen arte. Ez da tipo txarra, baina gehiegi inplikatzeko da sartzen den saltsa bakoitzean.

—leupa, Arritxu! Zemouz gabiltza?

—Hamentxe, talasotik bueltan.

—Ez zea gaixki bizi! Izan al zea kontzentrazioan?

—Ez, ez naiz enteratu. Bihar manifa dala bai, baina...

—Hirurehun bat lagun izango ginan. Halare, ez dakit, iruitzen zat alperrik ai geala dirua jarri, proiektu berriak sortu ta indarrak gastatzen. Geo nahi duen bezela manejatzen gaituzte. Presioa beste era batea in biharko genduke eta...

—Arrazoi dezu, igual... Bueno, Igor. Jun biharra dakat. Aio!

Egia esan, ez daukat burua gogoeta egiteko. Ederki daukat gorputza. Nahiago lehenbailehen ohera joanda. Lau solairuak igo, arropa bustiak potera bota eta zuzenean ohera, komuneko buelta eginda. Biharko eguna berezia izango da eta aurpegi ona izan nahi dut. Amaiak gomendatu zidan krema berezi harekin igurtzi dut aurpegia, gozo-gozo, poliki-poliki. Gaur eskertu dut ohe zabal hau beste inorekin banatu beharrik ez izatea.

## LARUNBAT GOIZA

Hau da lo gozo egitea! Iruditzen zait, gainera, aspaldiko partez ametsetan hegan aritu naizela, Itzurun inguruetan. Pereza pixka bat eman dit arropak jantzi eta behera jaisteak, baina gaur larunbata da eta pulamentuzko gosaria egin nahiko nuke. Ogi txiki bat hartu dut eta buzoitik *Berría* jaso dut gorakoan. Aparrik gabeko kafesnea berotu dut, tostada pare bikaina prestatu eta izenburu nagusiak ahal bezain natural irensten saiatu naiz: 8 atxilotu azkenean, manifestazioa egiteko deia... Maialen Lujanbio eta Anduren zutabeak irakurri ditut hurrena, astean 6 egunetan egin ohi dudana bezalaxe. Hori da idazteko abiltzadea, hori!

Egongelan erdi etzanda, orrialdeak aurrera doaz, goizeko orduak bezalaxe. Gaur Kintoen bazkaria dugu. Ez genuen soldaduskarik egin, baina izen ofizial hori hartu dute urte jakin batean jaiotakoak biltzen dituzten jatorduek. Lehen ez zen horrelako askorik egiten. Zeinek asmatu ote zituen jantzia horiek, jatetxeetako jabeek? Negozio ederra egiten dute, behintzat, lagun bakoitzarena 30-40 euro kobratuta!

Orain artean ez ditut horrelakoak maite izan, baina Andonik iaz hain ondo pasa zuela esan zidan! Ikastolan 8. mailan ibilitakoak ere elkartu ohi ginen aspaldi, eta gogoan dut azkenekoan ezkontzak eta kredituengatik ordaindu beharreko interesak izan zirela hizketagai nagusiak. Patetikoa! Beste patilladun baten hitzak etorri zaizkit orduan gogora, bere azken diskoan 30 urte betetzeagatik zenbait krisitxo kontatzen eta kantatzen dituen. Ai Mikel, Mikel Urdangarin... Gogoan izango ote du Gasteizko kontzertu haren ondorengo parranda? Txispatuta bera, animatuta ni, abenduko gau hartako hotzari elkarrekin aurre egingo ote genion desiratzen hasi nintzenean, bere lagunek bahitu zidaten, lotsagabe. Halere aurten Korrikako kontzertura etorri zenean bi muxu emanez agurtu ninduen, maitekor. Ez da oso polita, baina badu "zeoze" . Halaxe dio orain, kantu batean:

*Zetan zabiz laguna  
Hortik ez zara aspertuko bada, gurean  
Gauzak jadanik ez dira lehengo moduan  
Jendea ezkontzen doa, normala  
Bakotxa bere bidetik doa, baina ez pentsa  
Oraindik ere elkartzen gara solteroak*

Neskazahar geratuko ote naiz ba? Ez zait iruditzen. Oraindik badago solteroa pranko. Lehen zimurtxoak ere agertzen hasi zaizkit, ordea, eta gaur seguru neska (edo andre?) gehienak prepara-prepara eginda joango direla! Ni nire estilora, makillaje handirik gabe, baina beti bezala ere ez. Burua garbitu dut lehenbizi, ilea leuntzekoa bota ondoren, aparrarekin forma pixka bat eman, kremarik maiteena zabaldu aurpegian, begietan marra urdin-berdexka egin... Hain guapa nago!

Eguerdian hasiko da festa, txikiteoarekin. Bazkaria dagoeneko ordaindu nuen, baina gaua luza joan liteke eta diru dezente hartu dut kajoitik. Euroarekin ederra porrua sartu ziguten! Denak gora egin du!

Neska bakarretako naiz, hasieran. Klaro, ile-apaindegitik ateratzear izango dira asko, umeak gurasoei edo dena delakoei uzten...

—Ze hartu bihar den, Arri?

—Epa, Jon! Marianito bat, igual. Baina batean bai eta hurrengoan ez, bestela bazkალაurretik pinpirinduko nauk!

Esan bai, baina gero “ahaztu” egiten zitzaion Joni nire enkargua. Bakoitzaren erdia edanda konpondu dut kontua. Mutil gehienak ere gogor ari dira, txakolinetara. Eskerrak Paolera bidean haize pixka bat hartu dugun! Erdian geldialdia egin nahi zuenik ere bazen, baina berandu gindoazela eta konbentzitu ditugu “ardi galduak”.

Izan dira zuzenean bazkaltzera joan diren dozena bat lagun, andreak gehienak. Panpoxa-panpoxa. Txikiteoan aritu garen tropelarekin ziento erdia. Menu bikaina geneukan zain: ganbak plantxan, txangurroa, piper beteak, urdaiazpikoa, esparragoak, xapoa eta txuleta!! Ni bi talderen erdian kokatu naiz: batean etxebizitzak, altzariak eta umeak izan dira gai izarrak; bestean Astarloa eta Txanpions. Ez da itsusia, ermuarra. Une batean, ordea, bi taldeek bat egin dute eta aita edo ama izatearen zirrarak famatu dituzte. Normala, ia denak guraso dira-eta dagoeneko. Egunen batean ama izan nahi dudala ukatu gabe, bakarrik bizitzeak ere hainbat abantaila badituela arrazoitzen saiatu naiz, alferrik. Bihar goizean aje ederrarekin jaiki eta hurrekin ibili behar duenak zer pentsatua izango du!

Tarta eta kafea hartuta, kopak eskatzen ari ginela, 3 lagun Donostiara joan dira; manifara, noski. Iluntzean elkartuko omen zaizkigu, berriz ere. Ni txispatuegia nago, gauza onerako. Bayleis edo dena delakoa eskatu dut; tuboan, izotz koskor batekin.

## LARUNBAT ARRATSALDEA

Ez dago presarik jaikitzeke. Ikastolan ibili ez zirenek aurpegi arraroz begiratu digute, baina guk bertso zaharrak abesteari ekin diogu. Joanito Dorronsorok entzungo bagintu...

*Ari naizela, ari naizela...*

- *Haizeak bidali du handikan honuntza...*
- *Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe...*
- *Neskazahar bat tentatzen hasi naiz lehenguan...*

Gaur egun polita da eta rossli bat erre dut. Sara Montiel bezala. Giro bikainean jardun dugu gero kantuan (*Ni naiz kapitain pilotu, Ixil-ixilik dago...*), nagusiak aurpegi txarra jarri eta jaikitzen hasi behar izan dugun arte. Berriz ere “herrira” bueltatu gara, haizea hartuta, buruan ere bai pixka bat. Kanpoan atzo baino hotzago, barrua beroago. Arratsaldeko poteoa hasi dugu plazatxoan.

—Hik’e zurittoa, Arri?

—Konporme. Zenbat jarriko deu kaja?

Hamar euro! Zaindu beharko dugu erritmoa, ez mozkortzeko. “*Lasai, mutilak, etziok presailan eta*”. Taberna handi batean ezkontza bateko

taldearekin elkartu gara. Ez da giro! Hori da gizonezkoen traje eta batez ere emakumezkoen soineko desfilea! Hori da erakutsi beharra! Askok txala bizkarrean botata ere, pulmonia hartuko dute gajo horiek! Zeinen ezkontza izan ote da? Ez da posible! Gizajo hori ezkondu dela? A zer ustekabekoa! Frogatuta dago, beraz, gaur den egunean edozein ezkontzen dela!

Bokata bana hartu dugu taberna batean. Ez gosea geneukalako, baina alkohol tasa jaisten lagunduko digu. *“Sagardoa? Ez, eskerrik asko! Kafea bai: ebakia”*.

## LARUNBAT GAUA

Neska eta andre gehienek erretira egin dute berehala. Neu naiz gaueko erregina... Garagardo gehiago ez dudala nahi esan diot Joni. *“Ura, naturala, hi bezelakua”*. Barre egin dit. Plazaren beste aldera joan gara, gaueko girora. Bestelako musika dago hemen, dantza egiteko egokiagoa. Batez ere musika bere semetxoa bezain ondo zaintzen duen zerbitzari horren tabernan! Bertan geratuko nintzateke gau osoan, dantza eta dantza, komunera doazenei katu-begirada eskaintzen, Jabier Muguruzaren animalia hark bezalaxe:

*Pantera emea heure logelan barrena paseatzen;*

*pantera emea heure ariman barrena paseatzen...*

*Eman al diok inoiz musua panterari?*

*Ikusi al duk inoiz pantera emea amodioaz gozatzen.*

*Ez dakik amodioa zer den, amigo.*

Nik ez daukat hauts zuriaren beharrik animatzeko. Adinkideak ez dira oso dantzari onak, mugimendukoak, baina pare bat ahalegintzen ari dira. Hiru ordu geroago, orduan eta baldarrago. Tabernaria bai majoa! Keinu pare bat egin dizkiot eskerrak emateko; ondo ari dela. Eskuekin azkena dela esan dit, The last; lastima!

Sei laguntxo geratu gara taldean, beste denak mutilak, noski. Zuloko taberna txiki hura zabalik egongo dela bota du baten batek. Arrazoi zuen, baina musika elektronikoak ere guk nahi baino lehenago isildu dira, saltoka izerdi-patsetan jarri eta berehala. Azkar joan da gaua gero!

—Aizue!! Hamar minutu barru irekiko due kruasandegiya!

Haraxe abiatu gara, zuzen. Aitorrek bizkarretik heldu dit, disimulu handirik gabe.

—Etzikat bate hotzikan, hi!! Fuera esku hori!

Uxatu dudala iruditu zait, haserretutako pantera batek bezala begiratu diodanean. Zabaldutako goizeko lehen txiringittoa, artean ere gauez. Nik kafesnea txokolatezko napolitanarekin. Hau da jendetza inguratu dena! Aspaldi ez nuela horrelako parrandarik egin! Ez da amaitu, gainera. Atzean taldetxo bat dago, hirukote xeble bat, ustez mutilzaharren kluba osatu duten horietakoa. Hori da zerbitzariari adarra jotzea! Horiek dira ateraldiak! Ez lirateke bertsolari txarrak izango! Bat, gainera, eskolarteko txapelketan bat-batean



aritutakoa da, erdi poeta, aurten AEK-ko piropo lehiaketa irabazi zuena. Nola zen?

*Ai zure xarma, a ze arma, sarean sartu nauzun armiarma!*

Hori grazia! Zerbitzariak seguru esango lukeela euli nazkanteak direla eta pozik akabatuko lituzkeela, baina patilladun hori... ez dago hain gaizki. Ni baino urtebete zaharragoa da, ikastolan ibilitakoa. Urte batzuk egin zituen Zarauzko panpin harekin!

Bertsotan hasi dira gero, puntuka. Ederki ari dira, aluak, berriz ere zerbitzaria zirikatzen. Parranda-lagunei batere kasurik egin gabe, atzeko inprobisatzaileei adi egon naiz, barre txikiarekin. Neska-kontuak atera dituzte hurrena, eta bizkarra emanda nengoena haiei begira jarri naiz. Bertsoa bukatu dutenean neuk eman diet hasiera:

—Mingaina bai luzea, beste zerbait motza...

Moztuta geratu dira, erabat. Ni barrez hasi naizenean patilladunak arrankatu eta bukatu du bertsoa, hankamotz puntu batean, luze hurrengoan. Intentzioak balio du. Bisigu-begiak ditu pixka bat, baina Jon, Aitor eta konpainia baino gorputzaldi hobearrekin antzeman dut "bertsolaria".

Behatzarekin gerturatzeko eskatu diot eta otzan-otzan inguratu zait. Publikorik gabe ofizioka egin nahi ote duen xuxurlatu diot belarrira, bat-batean, doinu gozo bat hartuko dugula, etenik gabekoa. Saio bat egin genezakeela, edo bi. Poto egingo balu ere barkatuko niokeela. Errima eta erritmoa zainduko ditugula bion artean...

Hau da, hau, mutila! Esan dit hurre dagoela bere aretoa. Oholtza handia daukala, bi metro zabalekoa. Eta txapela janzteko gogoz dagoela...

Begi gorrietara begiratu eta itsasoan arrantzara murgildu naiz. Nire ezpain mamitsuekin hartu ditut bereak. Zurrupatu nahi dut, hustu arte, baina ez bakastak bezala. Goazen!

Ez kaparrik, ez bakarrik.